



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako Lana

ERANSKINAK

AURKIBIDEA

1. eranskina. Lekeitioko itsas-arrantza ondarea	3
2. eranskina. Ikasleen galdetegia	12
3. eranskina. Irakasleen galdetegia	18

1. ERANSKINA: LEKEITIOKO ITSAS-ARRANTZA ONDAREA

a) Pertsonaiak

- **Aittitta Makurra:** Isuntzako hondartzan dagoen harria da. Istorio batek kontatzen duenez herrikideak sendatzen zituen arrantzale umil bat hondartzara hiltzera joan eta heriotzak ukitu ondoren harri bihurtu zen herria berarekin gogora zedin. (Iturria: Lekeitio 1)
- **Antero:** Luis Antero Salinas Kruzalegi (1874 – 1955). Bizitza guztian arrantzalea izan zen, txipiroi harrapatzailea. Bere garaian ezaguna izan zen eta gaur egun ezagutzen dugun kantua idatzi zioten. Leitioko jaiei hasiera ematen dien pertsonaiak bere izena darama. (Ocamica, 2004)
- **Txatxo (Txatxo kaia):** 1492. urteko abuztuaren 3an Cristobal Colon Palos-etik atera zen Ameriketarantz. Santa Maria karabelan Txatxo lekeitiarra zihoan kontramaisu bezala. 69 egun nabigatzen ibili ondoren iritzi ziren. Irla ezberdinetatik ibili ondoren urte bereko abenduan hil zen Txatxo (de Madariaga).

b) Lanbideak

- **Sareginak:** Itsasontziaren sarea konpontzeaz arduratzen diren emakumeak dira.
- **Talaieroa:** Talaian egoten zen eta kearekin arrantzaleei esaten zien arraina non zegoen edo galarrenarena zettorrela. Itsasontzietan teknologia erabiltzen hastean lanbide hau galdu egin zen. (Ocamica Goitisolo, F., 2004)
- **Dei eittekoak:** Emakumeek betetako lanpostua da. Itsasontzia itsasora atera behar zenean telefonorik ez zegoen garaietan, marinelei etxerik etxe joanez abisatzen zieten. Honez gain, itsasoan igaro beharreko egunetarako elikagaiak erosi, arraina deskargatu, otzaretan sartu, arraina saldu etab. ere egiten zuten soldatarik kobratu gabe. (Iturria: Txatxo kaia)

c) Lekuak eta eraikinak

- **Portua:** 1735ean nasa bi zeuden Nazazarra eta Nazabarria. Bien artean zegoen pasadizoari Nasabittartia deitzen zitzaion. Gaur egungo portua XIX. Mendean eraiki zen aurreko nasak kendu eta zenbait moila eraikiz: Abadeen moila, plaza

azpikoa, Txatxo kaia eta iparraldeko moila. Azken hau gaur eguneko Tinglaur da. (Iturria: Txatxo kaia)

- **Tala:** XX. mende hasieran eraiki zen portua babesteko asmoz. Izena antzina bertan zegoen talaiatik dator. (Iturria: Txatxo kaia)
- **Lanuzarri edo islako moila:** 1856an amaitu zen. Berau eraiki aurretik Lea ibaia portura arte heltzen zen eta ekaitza zegoenean edo itsas behera zegoenean itsasontziek arazoak izaten zituzten portuan sartzeko. Behin eraikita, ibaiaren norabidea aldatu eta arrantzara irteteko aukera gehiago izan ziren. (Iturria: Txatxo kaia)
- **San Pedro Arrantzaleen Kofradia:** XV. mendearen erdi aldekoa dela uste da. Arrantzaren gorabeherak gobernatzen ditu ekonomia-, gizarte- eta profesional-mailan. (Iturria: Txatxo kaia)
- **Ontziolak:** 1338. urteaz geroztik Lekeition itsasontziak egin izan dira. Historian zehar izandako ontziola kopurua ezberdina izan da. Lanean aritu diren azkenak R. Mendieta, D. Mendieta, Eiguren, Murelaga eta J.A. Mendieta dira. Gaur egun ez da bat ere irekia gelditzen baina batzuen kasuan eraikinak ikus daitezke eta besteen kasuan erabiltzen zuten arranpa. (Iturria: Txatxo kaia) (Erkiaga)
- **Santa Katalina itsasargia:** 1862. urtean inauguratu zen. 5. ordenako itsasargia da eta distantzia txikiko dorre etxeen kategorian sartzen da. Teknologia aurrera egin duen heinean aldaketak jasan ditu bere iriste ahalmena handiagotuz. Bere jabetza beti izan da Kostasena. 1981. urtera arte farozaina egon da bertan bizitzen. Gaur egun bere mantenu eta funtzionamenduaz Bermeoko Matxitxako itsasargiko teknikariak arduratzen dira. 2010. urtetik aurrera Nabigazio teknologiaren Interpretazio Zentroa da.

d) Ohiturak

- **Kilin-kala:** San Pedro egunean egiten da santuaren prozesioan. Itsasoaren aldetik irudia daramatenak makurtu egiten dira eta irudia inklinatu egiten da. Garai batean arrantzaleek San Pedrori arrantza ona izango zuten galdetzen zioten eta honek baietz esan arte (San Pedro simulatzen zuen gizon batek ematen zuen baiezkoa) ur etxean bere irudia inklinatu egiten zuten mehatxu moduan

(Ocamica, 2004). Gaur egun, ohitura hau urak bedeinkatzeko egiten da arrantzaleek arrantza ona izan eta ezbeharrik izan ez dezaten.

- **Kaxarranka:** Kaxa baten gainean egiten den dantza bat da. Aitzina kaxa barruan kofradiako dokumentuak gordetzen ziren eta San Pedro egunean maiordomo aldaketa egitean maiordomo ohiaren etxetik maiordomo berriaren etxera eramaten zen. Dantzariak (maiordomo berriak) San Pedro irudikatzen zuten, arrantzaleen patroia. (Iturria: Lekeitio 1859 – 1959)
- **Antzar jokoa:** 1722tik aurrera itsasoan egiten dira, lehenago herriko plazan. 1877tik aurrera San Antolinen jaien barruan ospatzen dira, lehenago Andra Mariaren egunean eta San Roke egunean ospatzen zen. 1666. urtean parte hartzen zutenak arrantzaleak ziren. (Iturria: Lekeitio 1859 – 1959)
- **Estropadak:** Traineruak Kantauri itsasok ontzi autoktonoak dira. Barruan zihoazen gizonak arraun eginez eta haizearen laguntzarekin mugitzen ziren. Abiadura handiz arrantza guneeetara joan, barruan eramaten zuten sarea bota eta arrantzatutakoarekin portura bueltatzen ziren berriz. Istilu, pike eta erronka asko izaten ziren. Gaur egun ezagutzen ditugun estropaden aitzindariak dira. (Iturria: Txatxo kaia)

e) **Hitzak**

- **Atezuan:** Barkua amarralekuari lotzen duten soka tentsioan dagoenen ia apurtu beharrean. (Iturria: Lekeitioko berbak (1) Itsasoa)
- **Atoian:** Erremolkean eraman. (Iturria: Lekeitioko berbak (1) Itsasoa)
- **Bagea:** 1 Itsasoaren egoeratariko bat da. Olatu sakon handiak datoz itsasotik lehorrerantz etorri eta olatu-horma jota apurtzen dira. 2 Azpiko itsasoa urruneko presio baxua edo denboralea dela eta. (Iturria: Lekeitioko berbak (2) Eguraldia)
- **Balantzaka:** Itsasontzien ibiltzeko era, batera eta bestera ibiltzea olatuen eraginez. (Iturria: Lekeitioko berbak (1) Itsasoa)
- **Bare:** Itsasoaren egoera. Itsasoaren azala gelditu dago haizea egon daitekeen arren. (Iturria: Lekeitioko berbak (2) Eguraldia)
- **Batel:** Txalupa, itsasontzi txikia, potin txikia. (Iturria: Lekeitioko berbak (1) Itsasoa)

- **Baxura:** Arrantzako tokia, kostatik legoa batera edo. (Iturria: Lekeitioko berbak (1) Itsasoa)
- **Belaizea:** Haize mota bat da. Beladun itsasontziak ibiltzeko egokiena. (Iturria: Lekeitioko berbak (2) Eguraldia)
- **Boga:** 1 Haitz arteko arrain zuria. 2 Arraunean egitea. (Iturria: Lekeitioko berbak (1) Itsasoa)
- **Denporalea:** Itsaso zantarra. (Iturria: Lekeitioko berbak (2) Eguraldia)
- **Deslai:** Itsasontzia noraezean dabilenean itsasoak eraginda. (Iturria: Lekeitioko berbak (1) Itsasoa)
- **Despiska:** Harrapatu eta gero sare bitartean kateaturiko arrainak ateratzea. (Iturria: Lekeitioko berbak (1) Itsasoa)
- **Dzangada:** Dzanga egitea. (Iturria: Lekeitioko berbak (1) Itsasoa)
- **Dzanga ein:** Buruz behera uretra salto egitea. (Iturria: Lekeitioko berbak (1) Itsasoa)
- **Dzapat:** Uretara hankaz behera salto egitea. (Iturria: Lekeitioko berbak (1) Itsasoa)
- **Dzapatada:** Dzapat egitea. (Iturria: Lekeitioko berbak (1) Itsasoa)
- **Dzingo:** Uraren sakonera. (Iturria: Lekeitioko berbak (1) Itsasoa)
- **Erresaka:** Uretan sortzen den korrontea. (Iturria: Lekeitioko berbak (2) Eguraldia)
- **Estrepo:** Soka forma bat arrauna toletari eusteko erabiltzen dena. (Iturria: Lekeitioko berbak (1) Itsasoa)
- **Galarrena:** Goizeko sargoriaren ostean era batera sartzen da eta kanpoko beroak eta uraren hotzak sortzen dute. (Iturria: Lekeitioko berbak (2) Eguraldia)
- **Gangil:** Garabil bat duen plataforma antzekoa. Portuak garbitzeko erabiltzen da. (Iturria: Lekeitioko berbak (1) Itsasoa)
- **Haize olatua:** Haizeak eraginiko olatua. (Iturria: Lekeitioko berbak (2) Eguraldia)

- **Harrankila:** Itsasontzia hondoari lotuta izateko erabiltzen den tresna. (Iturria: Lekeitioko berbak (1) Itsasoa)
- **Hondura:** Uraren sakonera. (Iturria: Lekeitioko berbak (1) Itsasoa)
- **Iuta:** Arrainak harrapatzeko erabiltzen den plastikozko hari zuri gogorra. (Iturria: Lekeitioko berbak (1) Itsasoa)
- **Kabana:** Arrain fabrika. (Iturria: Lekeitioko berbak (1) Itsasoa)
- **Kalma zuria:** Itsasoaren egoeretariko bat non itsasoa geldi-geldi egoten den eta haize tantarik be ez dagoen. (Iturria: Lekeitioko berbak (2) Eguraldia)
- **Kanpaizea / norta:** Erdarazko “viento norte”. Arrantzaleak “kanpo” erreferentzia hartzen dute itsasoari aurrez aurre begiratuta. (Iturria: Lekeitioko berbak (2) Eguraldia)
- **Kardai:** Arrain zantar-zantarra jateko ere balio ez duena. (Iturria: Lekeitioko berbak (4) Irainak)
- **Maluta:** Arrainetan erabiltzen den engainu klase bat. (Iturria: Lekeitioko berbak (1) Itsasoa)
- **Palt egin:** Iuta edo soka etetea. (Iturria: Lekeitioko berbak (1) Itsasoa)
- **Pal-pal:** Motor txikina edo edozein barku geldi geldika dabilenean zerbaitetan. (Iturria: Lekeitioko berbak (3) Onomatopeiak (1))
- **Pla-pla:** Arraina frijitzeko modu bat adierazten du. Lehenik, irinetan ondo pasatzen da, gero arrautzatan eta azkenik frijitu egiten da. Edozein arrainekin erabil daiteke baina gehien bat antxoekin erabiltzen da. (Iturria: Lekeitioko berbak (3) Onomatopeiak (2))
- **Tankea:** Buiak. (Iturria: Lekeitioko berbak (1) Itsasoa)
- **Tiraina:** Korrontea. (Iturria: Lekeitioko berbak (1) Itsasoa)
- **Tosta:** Bateletako edo potinetako jesarlekuak. (Iturria: Lekeitioko berbak (1) Itsasoa)
- **Tostarte:** Potinetako tosten arteko hutsunea. (Iturria: Lekeitioko berbak (1) Itsasoa)
- **Trañ:** Sarea. (Iturria: Lekeitioko berbak (1) Itsasoa)

- **Traganarrua:** Ur zirimola. Itsasotik ura hartu edo xurgatu eta gora igotzen da biraka. (Iturria: Lekeitioko berbak (2) Eguraldia)
- **Tretza:** amu asko dituen lanabesa. (Iturria: Lekeitioko berbak (1) Itsasoa)
- **Treotzara:** Trezak eramateko otzara. (Iturria: Lekeitioko berbak (1) Itsasoa)
- **Tuntuxa:** Buia klase bat. (Iturria: Lekeitioko berbak (1) Itsasoa)
- **Txitxiñ:** Antxoa txikia. (Iturria: Lekeitioko berbak (1) Itsasoa)
- **Txo:** Itsasontziko txikiena. (Iturria: Lekeitioko berbak (1) Itsasoa)
- **Zingan egin:** Arraunean egiteko modu bat. (Iturria: Lekeitioko berbak (1) Itsasoa)

f) **Kanta herrikoiak**

- **Itsasotikan gatozenia**

Itsasotikan gatozenian,
arrain barik portura,
andra zantarrak bialtzen gaittuz
afaldu barik lotara.

Ohian sartun ta popia emon,
Hau da betiko kontua.
Holako andrakin ezkontzen dana
Ez da makala tontua. (bis)

(Iturria: Traola jujian)

- **Traola / Señoero gaizto**

Traola, traola, traola
jujian itasorako treotzaria. (bis)

[Señoero zantar/gaizto lotsabaia/demoninesa,
beti itsasorako deija, bai deija!
Andra edarrak, ohian itxitta
txaputxeruen kontura.] (bis)

Traola, traola, traola...

[Bagoiz danok estrepezuan,
bakotxa beren tostara.
Lau sagar gordin/gorri,
oi puzka bat,
eun guztiko jakija} (bis)

Traola, traola, traola...

(Iturria: Traola jujian)

- **Anteron txamarrotia**

[Anteron txamarrotia,
Singerren bibotia,
haretzek ei dauko
preso tximinoia.] (bis)

Anteron txamarrotia,
Singerren bibotia,
haretzek ei dauko, ei dauko!
Preso tximinoia.

[Antolintxu cástate,
no seas inuzente,
aunque sea con pintor,

Zirillok Singerreri
zantar handija zara zu,
baita Zirillok barriz
ortuan kipula ostu.

Esta noche los ratones
han tenido gran funzi3n,
enseñando la chaketa y el bibote
al jefe de la estazi3n.

Lara la, lara la...

(Iturria: Traola jujian)

sabrás lo que es amor.} (bis)

- **Hiru bapor palta**

Hiru bapor palta,
motorrak etxian,
berrogeta hamar otzara
kopradijen aurrian.

Papardo txiki bat,
pobriak eskian,
jo lelengo kanpaiak,
bost ta erdijak diraz.

Zazpi papardo dao
pisuaren azpijan,
etorri zaittez, Kermana/hermana!

Bakotxa hiruna errial
dirua eskuen ganian.
Batelak moila zarrian,
balandrua deskargaten,
matxinilen aurrian.
Ura bera portuan,
harrikatza karriaten
neskatilak buruan.

[Y todo a media lus
y sin kalapazion
con los cristales rotos
vaya ventilazion.] (bis)

(Iturria: Traola jujian)

- **Goixeko sei tterdijetan**

Goizeko sei t'erdietan
izurdak braunparaka (berriro)

Ke ta ke,
talaijerua ke ta ke
talaijerua ke ta ke
talaijerua
baporak urten arte

Lelengo,
bapor Klotilde lelengo
bapor Klotilde lelengo
bapor Klotilde
etxadia eitteko

Botata,
gorri ederra botata
gorri ederra botata
gorri ederra
txikotetik eskapa

San Pedro,
botaik azpitik San Pedro
botaik azpitik San Pedro
botaik azpitik
dana Lekittorako

Partilla,
dieziotxo duroz partilla
dieziotxo duroz partilla
dieziotxo duroz
Sebero ta kuadrilla

Afaldu,
hotel Beitian afaldu
hotel Beitian afaldu
hotel Beitian
moskor ederra batu.

(Iturria: Traola jujian)

- **Urta, labiru, labiru, labiru, labirulera**

Urta, labiru, labiru, labiru, labirulera
urta labiru, labiru, labiru, labirula..

Itsasora jausi da gura Kaltzapintxo, ai pintxo
Pozik geratu ginan ez zanian itxo. (barrero)

Sirillo makinista
Kokomarro patro
Zaldupen joan zirian
atunetan atzo

Calcule uste(d), uste, uste Isidora
ama ataraizu otzaratik kanpora. (barrero)

Langreron pertsebia
beti gozuena
sustento ona dauko
lapikuarena,
Langrero pertsebatan
juaten danian,
jantzaliak itxoten

atunak ekarrirta
otzararik han ez
zesteruak eitteko
astirik euki ez

Calcule uste(d), uste, uste Isidora
ama ataraizu otzaratik kanpora. (barriro)

Langredo ta Pitxarra
pertseban hasi
Langredo gizajua
txirrist ein da jausi.
baina Pitxarrak berriz
etxera ihesi
holako parejarik
ez juat ikusi

Calcule uste(d), uste, uste Isidora
ama ataraizu otzaratik kanpora. (barriro)
Goiko kalian dagoz
etxe zahartsu baten
Langredo eta alabia
makarroiak jaten
Langredok alabia
guapatuten dauko
Otoio Indianua
datorrenerako.

• Paparduak

Paparduak esan eutsan
Kolajoko umiari
gaur dagoela bai Lekitton
besigua ugari
hik ez dok ezer balio
gure arrantzaliarentzat
gitxiago besteentzat

Hau da, bai da
gaur guk daukagun humore ona
Hau da, bai da
soinuakin poztutia da.

Arranegitar andrari
gorantziak bai danori
karta bi hartu ditugu
gaur goizian Pasaiatik
esaten deuskuela
aurten sapran gabiltzala
da emoteko mozu bi

• Otzaratxu bat

Palu, erremu, bela eta kordel
masija eta ura ere ba-ai
sartu daiguzan txalupan laster
itxaron barik gizonai

Otzaratxu bat, otzaratxu bi

Abaskalenian

Calcule uste(d), uste, uste Isidora
ama ataraizu otzaratik kanpora. (barriro)

Bergara kaleko
bodega zahar baten
Langrero ta Pitxarra
pertsebak egosten,
Langrerok alabia
majaturik dauko
Otoio indianua
datorrenerako

Calcule uste(d), uste, uste Isidora
ama ataraizu otzaratik kanpora. (barriro)

Bira bira makinista
bira bira dan-dana
geratu barik atzeko makinan
Lekittora goiaz eta
kakota ederra hartzera.

(Iturria: zeresanalekitto.wordpress.com)

Hau da, bai da
gaur guk daukagun humore ona
Hau da, bai da
soinuakin poztutia da.

Eskerrrik asko danori
herriko guztiari
pozez gaur entzun dozuela
gure soinu ederrak
agur zahar eta gazte
datorren urterartian
Jaungoikoa bitartez

Hau da, bai da
gaur guk daukagun humore ona
Hau da, bai da
soinuakin poztutia da.

(Iturria: zeresanalekitto.wordpress.com)

Otzaratxu bat, otzaratxu bi
arraña dator portura beti
besigu, lebatz, sardina eta atun
beste askoren gaiñetik. (berriro)

Berrogei arratz besigu dakar

arraña dator portura beti
besigu, lebatz, sardina eta atun
beste askoren gaiñetik. (berriro)

Herrira datoz ipar aldetik
belak betian ontzia-ak
ondo dirudi egun argitxan
belan dabilen ontzia

txalupa haundiak egiña-ak
hogeita hamar bat txikerrak eta
laroegi lebatz potiñak

Otzaratxu bat, otzaratxu bi
arraña dator portura beti
besigu, lebatz, sardina eta atun
beste askoren gaiñetik. (berriro)

(Iturria: zeresanalekitto.wordpress.com)

2. ERANSKINA: IKASLEEN GALDETEGIA

LEKEITIOKO ARRANTZA ONDAREA

Adina: _____

Bizilekua: _____

Sexu: Neska Mutila

Baduzu familian itsasoan lan egin / egiten duen inor? Bai Ez

1. Zein da “Ondarea” hitzaren esanahia?

2. Herri bateko ondarea ezagutzea garrantzitsua dela uste duzu? Zergatik?

3. Zein da beheko irudian agertzen den dantzaren izena?



Antzina zer gordetzen zen kutxa horretan?

Garai batean nork egiten zuen dantza hau?

- Kofradiako maiordimoak
- Dantzari batek
- Elizgizon batek

4. Zein da beheko irudian agertzen den ohituraren izena?



Zergatik egiten da?

- Arrantza ona egon dadin ura bedeinkatzeko
- Arrantza txarra badago San Pedrori zer egingo dioten erakusteko

5. Gai zara ondorengo irudian agertzen den lanbidea zein den esateko?



6. Nola dute izena garai batean itsasontziak egiten ziren lekuek? Gai zara Lekeitioko batzuen izenak emateko ?

7. San Pedro egunean goizean goiz emakume batzuk aritzen dira Lekeitioko kaleetan zehar gizonezko batzuen izenak eta ondorengo oihukatzen:

".... gora jaingoikuaren izenian"

Badakizu nola deitzen zitzaion lanbide honi?

8. Zein da Otoio mendian dagoen leku hau?



Bertan gizon bat egoten zen lanean. Nola du izena lanbide horrek?

Zein EZ zen bere lana?

- Arraina non zegoen abisatzea.
- Galarrena zetorrela abisatzea.
- Faroa zaintzea

Nola ematen zituen abisuak?

- Adarra (musika instrumentua) erabiliz.
- Ke zeinuak eginez.
- Oihu eginez

9. Urtero irailaren 1ean Antero jaisten da Lekeitioko kanpandorretik. Badakizu zein zen bere lanbidea?

Antero benetan existitutako pertsonai bat da?

- Bai
- Ez

10. Harri hau urtetan ikusgai egon da Isuntzako hondartzan. Gaur egun areak estaltzen du.



Badakizu zein den bere izena?

Bere inguruan sortu zen istorioak dio hondartzara heriotzaren bila joan zen gizon baten oroigarria dela. Zein zen gizon horren lanbidea?

- Medikua
- Arrantzalea
- Tabernaria

11. Ezagutzen duzu ondorengo hitzen esanahia?

❖ **Atoian**

- Erremolkean eramatea
- Segituan, arin
- Ganbaran

❖ **Galarrena**

- Itsasoko ura bare-bare dagoenean
- Trumoia dakarren itsasaldetik sortutako haize bortitza
- Arrainak sartzen diren otzara

❖ **Traganarrua**

- Itsasoan sortzen den zurrunbiloa
- Arrantzan egiteko tresna bat
- Arrain mota bat

❖ Iuta

- Kainabera
- Amua
- Pita

❖ Dzanga egin

- Barrura sartzea
- Etorri
- Buruz behera uretara salto egitea

❖ Despeska

- Arrainak saretik soltatzea
- Arrainak itsasora itzultzea
- Itsasontziak lotzeko soka

❖ Dzapart

- Laban (txirrist) egitea
- Uretara hankaz behera salto egitea
- Zerbait airera botatzea

❖ Dzingo

- Saltoa
- Haize mota bat
- Ur sakonera

❖ Harrankila

- Arrantzan egiteko tresna bat
- Itsasontzia hondoari lotuta izateko erabiltzen den tresna
- Itsasontziaren motorra martxan jartzea

❖ Erresaka

- Itsasoan sortzen den ekaitza
- Haize mota bat
- Ur korronea

❖ **Kalma zuria**

- Itsasoa bare-bare egotea
- Arrain pila harrapatzea
- Arrantzaleak itsasoratzen ez diren eguna

❖ **Traiñ edo traña**

- Eguraldi eskasa
- Arrantzatzeko sarea
- Arrantzaleen soldata

❖ **Txo**

- Itsasontzi bateko gazteena
- Itsasontziko patroia
- Arrantzalea

❖ **Zingan egin**

- Ospa egin
- Korrika egitea
- Arraunean egiteko modu bat

12. Non jaso duzu galdetegi hau betetzeko behar izan duzun informazioa?

- Etxean
- Eskolan
- Nire kabuz (irakurriz...)

13. Aurreko galdera "Etxean" erantzun baduzu, noren partetik? (Aita, ama, aitona, amona...)

14. Eskolan / Ikastolan Lekeitioko ondareari buruzko nahiko gauza ikasten direla uste duzu? Zer da ikasi duzuen?

Mila esker zure laguntzagatik

3. ERANSKINA: IRAKASLEEN GALDETEGIA

ONDAREAREN IRAKASKUNTZA IKASTETXEETAN

Adina: _____

Sexu: Gizonezkoa Emakumezkoa

Jaiolekua: _____

Bizilekua: _____

Irakaskuntzan daramazun urte kopurua:

0 - 5 urte 6 - 10 urte 10 urte baino gehiago (kopurua) _____

Ze mailatako tutorea zara?

1 2 3 4 5 6

Baduzu familian itsasoan lan egin / egiten duen inor? Bai Ez

1. Nola definituko zenituzke ondorengo terminoak? Adibideak eman ditzakezu?

Ondarea

Gertuko Kultura Ondarea

2. Ikastetxeko Hezkuntza eta Curriculum Proiektuek kontutan hartzen dute Gertuko Kultura Ondarea?

3. Ikasleekin landu behar dela uste duzu? Zergatik?

4. Ezagutzen duzu Lekeition dagoen arrantza ondarea (lekuak, ohiturak, antzinako lanbideak...)?

Bai Ez

5. (4.a BAI erantzun baduzu) Gai zara ondoren agertzen den zerrendan Lekeitioko arrantza ondarearekin zerikusia duten gauzak izendatzeko?

• **Lekuak:**

*

*

*

*

• **Eraikinak:**

*

*

*

*

• **Lanbideak (desagertuz doazenak):**

*

*

*

*

• **Ohiturak:**

*

*

*

*

Hauen jatorria eta historia ezagutzen duzu?

Bai Ez

- **Pertsonaiak:**

- *
*
*
*

Hauen bizitzari buruzko ezer ezagutzen duzu?

Bai Ez

- **Hitzak:**

- *
*
*
*

Hauen esanahiak ezagutzen dituzu?

Bai Ez

6. Ikasleekin lantzen duzu Lekeitioko arrantza ondarea?

Bai Ez

✓ **BAI** erantzun baduzu joan 7. galderara

✓ **EZ** erantzun baduzu joan 8. galderara

7. (6.a BAI erantzun baduzu bakarrik)

- **Ze arlotan?**

- **Ze eduki?**

- **Nola?**

- **Nondik lortzen duzu informazioa (Irteerak...)?**

8. (6.a EZ erantzun baduzu bakarrik) Ikasleekin lantzen duzu ondarea?

- Bai Ez

BAI erantzun baduzu:

- **Ze arlotan?**

- **Ze eduki?**

- **Nola?**

- **Nondik lortzen duzu informazioa?**

Mila esker zure laguntzagatik